

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Behin betiko onespena ematea Mercedes Benz lantegiak bere inguruko hiri-mugikortasunean eta bide-segurtasunean duen eragina murrizteko Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldakuntzan jasotako aurreikuspenak garatzeko hirigintza-kudeaketarako hitzarmenari

Hau erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko abenduaren 18an egindako ohiko bilkuran:

1. Behin betiko onespena ematea udalbatzak 2020ko apirilaren 24an onetsitako Vitoria-Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren aldaketan Mercedes Benz lantegiak bere inguruko hiri-mugikortasunean eta bide-segurtasunean duen eragina murrizteko egindako aurreikuspenak garatzeko Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Mercedes Benz SAUren ordezkarien arteko hirigintza-kudeaketarako hitzarmenari.

2. Erabaki hau Mercedes Benz SAUren ordezkariari jakinaraztea.

3. Hitzarmenaren Erregistro Publiko Administrazioan gordailutzea hitzarmena.

4. Erabakia ALHAOn argitaratzea. Erabaki honen kontra, administrazio bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik, edo, aukeran, berraztertze errekurtsoa, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsoa ezesten duen ebazpenaren berri jasotzen den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko abenduaren 18an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE